




LIBU
Istorio onen liburu-denda
La librería de las buenas historias

Enpresentzako jarduerak 2025ko katalogoa

Bihotza dituzten enpresak...

... eta baita estrategia ere.

Gizarte Erantzukizun Korporatiboa, ingurumenaren eta komunikazioaren arloko barne-politika **balio estrategikoko** pieza bihurtu dira.

Hamaika aukera daude helburu horiek bete eta jarduteko, bai eta administrazioen, gizartearen, akziodunen edo bezeroen eskaera gero eta handiagoa betetzeko ere.

Katalogo honetan **Zubietxetik** proposamen batzuk egin nahi dizkizuegu.



Zubietxe elkartea

Zubietxe elkarteak 30 urte baino gehiago daramatza lanean **gizarte-bazterketako egoeran** dauden pertsonen **aukera berri bat** emateko.

Gaur egun 250 pertsona baino gehiago artatzen ditugu:

- Gure eguneko zentroa Ollarganen;
- 15 etxebizitza babestu, pertsonen gizarteratzeko prozesuan laguntzeko
- Laguntza-zerbitzu pertsonalizatuak.



Libu liburu-denda



2015ean, Zubietxetik Libu jarri genuen martxan, bigarren eskuko liburu-denda sozial eta komunitarioa. Liburu-dendan liburu erabiliak saltzen ditugu:

1- Elkartearentzat funtsak lortzea.

2- Bazterkeria-egoeran dauden pertsonen errealitatea **ikusaraztea**.

3- Espazio bat eskaintzea Zubietxeko erabiltzaileek **sozializatze**ko aukera izan dezaten.

Zer eskaintzen dizuegu?

- 1.- Pobrezia-egoeran dauden pertsonen zuzendutako **laguntza eraginkorra** lortzea.
- 2.- **Enpresa gisa**, komunitateko eta inguruko pertsonen egoera hobetzen laguntzea.
- 3.- Langile guztiak eta haien familia eta lagunak inplikaturiko dituen **talde-jarduera** bat garatzea.

Jarraian azaltzen dizkizuegu gure
LANKIDETZA EREDUAK.



1. eredu:



Enpresa aliatua

Libuk **kultur jardueren programazioa** du (liburu aurkezpenak, solasaldiak, ipuin kontalariak, tailerrak), 2024an garatuko dena.

Programazio honetan **babesleek** parte hartu ahal izango dute, gizarte bazterketako egoeran dauden pertsonetikiko kultura eta elkartasuna sustatuz.

Enpresa babeslea **komunikazio-euskarri** guztietan agertuko da: e-posta, kartelak, gonbidapenak, prentsarako komunikazioak, Libuko euskarriak, ekitaldi berberetan, aipamenak, etab.

Ekarpena: 9.500 euro



2. eredu:



Enpresa babeslea

Libuk **kultur jardueren programazioa** du (liburu aurkezpenak, solasaldiak, ipuin kontalariak, tailerrak), 2024an garatuko dena.

Ekimen hau zabalik dago gure **jardueraren bat babesteko**.

Babesle gisa, **jardueraren euskarri komunikatiboetan** agertuko da: posta elektronikoa, kartelak, ekitaldi beretako euskarriak, aipamenak, etab.

Ekarpena: 2.000 euro



Liburu solidarioaren astea

Ekimena, enpresak langileak **liburu erabiliak ematera** animatzea da, gero Libun saltzeko. Ekimenak aste bat edo bi iraungo du.

Bulegoen edo planten sarreran, liburuak uzteko **ontzi** bat egongo da.

Enpresak konpromisoa hartzen du langileek emandako liburu bakoitzeko **euro bat gehiago** emateko.

Aurkezpen pertsonalizatua egin dezakegu zuen enpresan, ondorengo lunch-arekin edo gabe.



Irakurketa solidarioaren astea

Enpresak langileak **bigarren eskuko liburuak erostera** animatzea da ekimena. Ekimenak hilabeteko iraupena izango du.

Bulegoen edo lantegien sarreran **erakusketari bat** egongo da, non pertsona guztiek (langileak, bezeroak, bisitak) liburu bat erosi ahal izango duten 3 €-ren truke edo bost liburu 10 €-ren truke.

Enpresak konpromisoa hartzen du erositako liburu bakoitzeko **euro bat gehiago** emateko.

Aurkezpen pertsonalizatua egin dezakegu zuen enpresan, ondorengo lunch-arekin edo gabe.



Lankidetzak jarduerak

Libun giza edo kultura-jarduerak egiten ditugu.

Publiko gisa bertaratzea proiektuari laguntzeko modu bat da, jarduerak sortzen laguntzen eta bultzatzen baitu.

Beste modu bat **proiektuaren enbaxadore** izatea; jarduera, kultur programazioa, Libu bera eta Zubietxe ingurune hurbilenean zabalduz.



Lan kooperatiboak

Helburua pertsonen arteko harremanak eta talde-lana sustatzea da, ohikoa ez den beste ingurune batean.

Enpresako pertsonak Libu proiektuan **behin parte hartzea** proposatzen dizuegu, besteak beste, biltegi bat antolatzeko, liburuak sailkatzeko, apalategiak muntatzeko, birziklatze-lanetan parte hartzeko, etab.

Hori guztia **helburu sozial** batera bideratuta dago: gizarte-bazterketako egoeran dauden pertsonen laguntzea.



Oparitu kultura solidarioa

Gizarte-bazterkerian dauden pertsonak **artesanalki eskuz bildutako liburuak** eskaintzen dizkizuegu. Nahi badituzu, pertsonalki aukeratu ditzakezu, edo Libutik nahiago baduzu, guztiaz arduratuko gara.

Norentzat: haurren urtebetetzea, enpresa-agurreko opariak, ezkontzak, ekitaldiak, etab.

Barne hartzen ditu: 1 liburu eta orri-markatzaile, artesanalki eskuz bildutako pertsona bakoitzeko, etiketa **pertsonalizatuarekin**.

Ekarpena: 4 euro pertsonako + bidalketa-gastuak



Neurrirako lankidetza

Egiguzu proposamen bat!

Zure enpresak zailtasunak dituzten pertsonen alde egin nahi duen keinua proposamen hauen artean ez badago, ez kezkatu.

Jarri gurekin harremanetan eta plan espezifiko bat diseinatuko dugu, zuen neurrira egina.



Prozesu osoan lagunduko dizugu

Posta elektronikoa, gutun edo liburuxka bidezko **komunikazio-ereduak** ditugu, zure langileei bidaltzeko.

Sare sozialetan, barrukoetan zein kanpokoetan, partekatzeko kartel eta irudi ereduak ere baditugu.

Zubietxe eta Libu zer diren azaltzen duten **bideoak** ditugu, **zure logoa** eta ekintzan parte hartzeko egokitu daitezkeenak.

Harremanetarako bakarrik **pertsona baten kontaktua** behar dugu jarduera garatzeko.




Eta amaitzean...

Dohaintza-ziurtagiri bat egiten dugu, enpresak **zerga-arintzeak** eskuratu ahal izan ditzan.

Datuak biltzen dituen txosten bat emango dizugu (bildutako kopurua, ekimenaren eraginaren adierazleak), eta zuen iraunkortasunari buruzko txostenetan sartu ahal izango duzu.

Langileei eta inplikaturako pertsoneri **eskerrak emateko komunikazio-ereduak** ditugu.





Libu
liburu-denda

Harategi Zahar Kalea, 7
Alde Zaharra (Bilbo)
Tf. 944 74 34 41
libulibreria@gmail.com

libu.es

Instagram: librerialibu
Twitter: libubilbao

proiektuaren sortzailea:



Zubietxe
elkartea

Abenduaren 22a Kalea, behea.
Oiargan (Abusu, Bilbao)
Tf. 944 16 69 41
zubietxe@zubietxe.org

zubietxe.org

Instagram: zubietxe
Twitter: zubietxe